

JOSE LUIS OLASOLO GOGOAN

Joan den 2025eko uztailaren 18an hil zen gure bazkide Jose Luis Olasolo Guerenabarrena, Bizkaiko Etxebarrian, 1942ko azaroaren 16an jaio zen herrian.

Jaioterrian batxilergo ikasketak egin ondoren, Arizmendiarrietaren eskutik, Eskola Profesionalean matrikulatzera joan zen Arrasatera, gaur egun Mondragon Goi Eskola Politeknikoan (MGEP), Ingeniaritza Tekniko Industrialeko karreran. Ikasketak 1962an amaitu zituen, eta, MGEPen irakasle saio batzuk egin ondoren, Ulgorren ekin zion bere ibilbide profesionalari, trokelista eta Instalazio Proiektuetako buru lanetan, eta ondoren Garagartzako Sukalde plantako zuzendari izendatu zuten, Arrasaten bizi zelarik. Ezkondu ondoren, 1970eko urrian, Aretxabaletara joan ziren bizitzera, eta 1971n berriro Arrasatera. Hurrengo pauso profesionala ULARCOko Pertsonal Zuzendaritza okupatzea izan zen, eta, eskualde taldeak zabaldu zirelarik, LEARKOko zuzendari nagusi izendatu zuten, eta 1979an jaioterrira itzuli eta Etxebarrian instalatu zen. 1991ko amaieran MONDRAGON Korporazioa eratu zenean, Kontseilu Orokorreko kide izan zen, Ingeniaritza eta Ekipo Ondasunen Dibisioko lehendakariorde izanik, eta 2007an amaitu zuen bere lan bizitza, Osagaien Dibisioko lehendakariorde postuan. Bere ibilbide profesionalean zehar, IHOBeko eta Fagor Etxetresna Elektriko, Eskola Politekniko, LagunAro EPSV, Laboral Kutxa eta Lea Artibai Ikastetxeko Kontseilu Errektoreetako kide ere izan da, azken horretan lehendakari.

Ikus daitekeenez, bizitza profesional oso bat kooperatiben munduan, Arrasateko Esperientzia Kooperatiboaren bultzatzaile eta defendatzaile nagusietako bat izanik.

Baina hor ez da bere historia amaitzen. ALE - Arizmendiarrietaren Lagunak Elkartea 2007an sortu zen, eta 2008ko apirilaren 29an Jose Luis gure Elkartean sartu zen bazkide, hil arte bertako pertsona aktiboa izanik. 2009ko uztailaren 18an, gure Zuzendaritza Batzordeko kide izendatu zuten, eta bertan jarraitu zuen 2017ko apirilaren 26ra arte. Baina ALEri egin zion ekarpen nagusia 2010ean abian jarri zen “Unibertsitateekin Lankidetzatza” izeneko proiektua sustatzea izan zen, etorkizuneko profesionalak, enpresa eredu desberdina, arrakastatsua eta balio humanistetan oinarritua aurkeztea helburu zuena, aldi berean Arizmendiarrietaren figura eta Arrasateko Esperientzia Kooperatiboa eta bere enpresak prestigiatuz. Batez ere Pako Salegirekin eta Elkarteko beste bazkide batzuekin batera, 10 urtean proiektuaren 250 aurkezpen baino gehiago egiteko gai izan ziren, Euskal Herriko eta Espainiar estatuko unibertsitateetan ez ezik, atzerrian ere. Brasil, Mexiko, Peru, Argentina, Kolonia, Kuba, Hego Korea eta Eslovenia herrialdeetako unibertsitateek ezagutu zuten proiektua. 2020. urtearen amaieran talde berri batek hartu zuen proiektuaren lekukoa, eta Pio Aguirre izendatu zuten arduradun, Jose Luisek urte batzuetan lankidetzan jarraitu zuelarik.

Proiektua, gaur egun, "ALE Hezkuntza Kooperatiboa" deitzen da, helburu berarekin eta Euskal Herrian zentratuta. Baina proiektu horri egin zion ekarpen itzelaz gain, gure kooperatiba batzuek eta beste erakunde batzuek Jose Luisi eskatzen zioten Arrasateko Esperientzia Kooperatiboan izan zuen zereginari buruzko hitzaldiak emateko, eta beti balio kooperatiboetan eta ereduak gizartea eraldatzeko duen gaitasunean jartzen zuen fokua. Horrez gain, ezin dugu ahaztu ALEren SUSPERTZEN eta AUSARTZEN argitalpenetan egindako ekarpen nabarmena.

Zalantzarik gabe, Jose Luisen jarduera nekaezina izan da Arrasateko Eredu Kooperatiboaren eta bere balioen zabalkundean, bai MONDRAGONeko bere etapa profesionalean, bai ALEn kolaboratu duen urteetan.

Maila pertsonalean, hurbiltasunagatik nabarmentzen zen, soiltasunagatik, lagunak izateagatik. Mintzalari sutsua zen, oso parte hartzailea, besteengatik beti kezkatuta, eta euskararekin eta gure herriko erronka sozialekin oso konprometitua.

Beti geratuko da gure gogoan Jose Luisek adore ematen zigula Arizmendiarrietaren bultzada berarekin: *"Aurrera, beti aurrera!!!"*

Eskerrik asko, Jose Luis. Goian bego.

Miguel Angel Laspiur - ALE-Arizmendiarrietaren Lagunak Elkarteko kidea